

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIKO UDALA

#### **2019ko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea eta zergabiltetarako aldia**

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda, 2019koa, egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunek aipatutakoaren gaineko dokumentazioa udal idazkaritzan izango dute eskuragarri, jendea hartzeko orduetan.

Era berean, zerga ondoko epeetan kobratuko dela iragartzen da:

A) Araututako epea: 2019ko apirilaren 4tik ekainaren 3ra.

B) Betearazpen epea: 2019ko ekainaren 4tik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ozaeta, 2019ko otsailaren 27a

*Alkatea*

*AFRO OLABE MARTINEZ DE ALBENIZ*